



bestelako ekonomia bat posible da imagina

www.economiasolidaria.org REAS NAFARROAKO BULETINA

12^{zk.}
2008ko ekaina



Amayuelas

Estatu mailako biltzarra
2. or.

Beire

REAS Nafarroako biltzarra
3. or.



REASen estatuko topaketa: hausnar-keta kontzienteki aurrera egiteko

Elkartasun ekonomiaren estatu mailako biltzarra maiatzaren eta ekainaren arteko mugan ospatu da, Palentziako eguzkipean, laborantzez inguraturik. Eta nola ez, lasto-buztinezko herri berreskuratu batean, ilusioz, energia zein balio berriztagarriez beteriko batean.

Amayuelas herrian arnastu egiten da turismo arduratsua, nekazaritza ekologikoa, elkartasun ekonomiazko jarduerak eta, jakina, nazioarteko ospea eman dion zerbaitekin: Paulo Freire Landa Unibertsitatea (URPF). URPF unibertsitatea da "hezkuntza gune desberdinen eraikitze prozesu etengabea, gure herrietako, eskualdetako edo lurraldeetako errealitate ezberdinak bezalaxe". Informazio gehiago: www.nodo50.org/amayuelas ■



BAZENEKIEN ...

2008ko Auditoría Soziala

24 entitatekeginen dute Nafarroan elkartasunezko ekonomiaren auditoria soziala. Aurten pertsona batek lagunduko du horretan eta entitateek web zerbitzu bat erabili ahal izanen dute auditoria egiteko. 685 744 420, auditoriasocial@reasnet.com www.auditoriasocial.net

Webgune parte-hartzailea

REASeko entitateek jarduerak, dokumentuak, albisteak edo bideoak argitaratu ahal izanen dituzte. Ekainaren 9a lehenbiziko tailerra burutu da Conecta sarean. Jarduera hau Comunicación y Ciudadanía foroak bultzatua izan da.

Senidetze taldea

Talde bat sortu da elkarlanean aritzeko eta REASen zein Ekuadorko Salinas taldearen arteko senidetzea zentzuz betetzeko asmotan. Uda honetan zazpi parte-hartzaile joanen dira Salinas-Ekuador lan eremura. SETEMek gaitu ditu pertsona horiek, uztailaren 4tik abuztuaren 29ra bitarte joanen direnak, Elkarlanean aritu eta Hegoaldetik ikasi kanpainaren barnean.

Hobeki komunikatu: REASetik eta entitate bakoitzetik

Batzordeak esperimentatuz eta biltzarra entzunez eman dituen hiru urteak, erronka kolektibo berri bat dira: entitate bakoitzari tresnak zein ezagutza ematea elkartasun ekonomiatik hobeki komunikatzeko eta entitateei gune zabalago ematea sarearen proiektio publikoan.

Sareak hedapen publikorako material berriak eskuratu ditu.

Bere hedapena denon lana da:

- **Elkartasun ekonomiaren Nafarroako gida. 2008**
- **www.economiasolidaria.org**. Webgune parte-hartzailea REASen edukiak dituena.
- **DVD Akabo dirua**. Bestelako ekonomia bat posible da.



Amayuelas: beste kimu batzuen ernamuina

Arcadi Oliveresek panorama makro eta mikroekonomiko beldurgarria aztertu zuen, ironia puntu batez, nolabait barneratu ahal izateko.

REAS Extremadura sarean sartu da.



Jeromo Aguadok laguntzen digu kontzientzia hartzen lurra berreskuratzeko beharraz, itzultze konprometitu eta sortzaile batez.

Kontua da Amayuelas herriak giro osasungarrian hartu gintuela, Sareari pultsua hartzeko moduko gunean eta akordio berriei zein konpromisoei aurre egiteko. 100 pertsonak baino gehiagok hartu genuen parte. Beste jarduera batzuen artean Arcadi Oliveresen hitzaldi animatuan entzuteko eta solas egiteko aukera izan genuen. Neoliberalismoz eta Elkartasun Ekonomiaz aritu zen eta botin, filibustero eta espekulatzailen aurrean behar diren alternatibak aipatu zituen. Utopia posibleari irudi bat emateko, besteak beste, holandar aktibisten adibidea jarri zuen. Euren parlamentarioei presioa eginez misilak instalatzeko zuten botoa aldarazi zieten.

Aldi bereko lau tailer egon ziren honako lau gaiet buruz: Auditoria soziala, Banku etikoa, Merkatu soziala eta Kultura librea. Bakoitzean 30 bat pertsona aritu ziren.

Etorkizunerako proposamen bat aurkeztu zen elkartasun ekonomia gizarteratzeko Nova Terrak dinamizatutako plan baten bitartez. Plan hau CDESS deitzen da eta Valentzian eginen du apustu pilotua.

REAS Extremadurako lagunak ezagutu genituen, eta sarean sartzeko erabakiari ongi etorria eta baiezkoa eman zitzaion biltzarrean.

Amayuelaseko lagunok lurra modu iraunkorrean berreskuratzeko borroka gogorra baina ederra azaldu ziguten, bihotzik gabeko globalizazio neoliberalaren aurrean.

Hiru sektore-sare (Aeres, Fiare eta REAS) sareen sarean sartu dira. Guztira 10 lurraldeko eta hiru sektoreko gara.

Lehenbiziko pausoa eman dugu merkatu sozialaren arloan ARÇ Cooperativa aseguru etxearekin egindako estatu mailako akordio batez.



1. Raúl Contreras
2. Arcadi Oliveres
3. Jeromo Aguado
4. Biltzarra

Fiare proiektua: Kapital soziala lortzeko kanpaina

Fiare Nafarroa Elkartea eratu da. GGKEK, Red Pobreza eta REAS Nafarroa dira aipatu elkarteak osatzen dutenak (hiru sare hauek 150 kolektibo baino gehiago ordezkatzen dute). Kapital soziala lortzeko kanpaina abian da jadanik: 2011. urterako milioi eta erdi euro behar dira estatu osoan. **Ekarpen pertsonalak 100 eurotik hasita edo kolektiboak 500 eurotik hasita** egin ditzakegu. Iruñean Fiareren bulegoa astearteetan dago zabalik 17etatik 19etara IPESen (Tejeria kalea). Euskadiko Kutzako bulegoak lagun ditugu helburu horretan. Orain FIAREren mugimendua honela banatuta dago:



Kapital Soziala lortzeko kanpaina

Kapital soziala (2008 ekaina)	97.772 €
2011rako helburua	1.500.000 €

Elkargunearen laburpena

- 100 pertsona bertarata
- 2008ko estrategien kudeaketa eta onartzearen txostena
- Aldi bereko 4 tailer:
 - _ Banku etikoa
 - _ Auditoria soziala
 - _ Kultura librea
 - _ Merkatu soziala
- Hitzaldi eta proposamen zenbait
- REAS, Aeres eta Fiare sartzen dira
- REAS Extremadura sartzen da
- Merkatu Soziala: ARÇ aseguruak
- Informazio gehiago: www.economiasolidaria.org

REAS Nafarroako bitzarra

Lagunarteko giroan faltan sumatu genituen lagun gehiago ego-
tea, erabaki estrategikoen ataka hobeki igarotzeko.

Batzarraren egitura honela gelditu da:

Presidentea: Maite Ciganda (Hegoak)

Presidenteordea: Carlos Rey (Gaztelan)

Diruzaina: Mikel Artxanko (Barañain A.)

Idazkaria: Alfredo Picazo (Euroolan)

Bokalak: Andoni Romeo (Emaús)
Secretariado Gitano
Encarni Caro (Medicus Mundi)



REASen sartzan da eskubide osoko kide bezala: Medicus Mundi Nafarroa. Eguzki Bideoak eta Alter Nativas laguntza bazkide iza-
tera pasatzen dira.

Hartutako giltza-erabakiak: kudeaketa txostena eta plan estra-
tegikoa ikusteaz gain, jarrera protokolo bat onartzen da, Sareari
publikoki bere iritzia ematea ahalbidetuko diona gertakizun eta

gai estrategikoei dagokienez. REAS bezalako sare anitz batek,
elkartasun ekonomiaren alorra sendotu nahi duenak, publikoki
adieraziko du bere iritzia une jakin batzuetan hausnartze zein era-
bakitze oinarritzko prozesua eginda ■

Elkartasun Ekonomiaren marken erabilera zuzena



REAS marka saretik egindako
komunikazioetarako, jarrere-
tarako, kolektibo gehiagorekin
elkarlanerako eta abarretarako erreserbatzen da.



Marka bateratuak entitateen produktuen
zein jardueren bereizgarria izan behar du.
“Elkartasun-enpresa, REAS Nafarroaren
parte-hartzailea” testua lagunduta ager
daiteke. Sektoretan banatutako atal batean
ageri denean (finantzatzen du, laguntzen
du...) SEKTOREA* sagarrerako kontzeptu-marko bat jarri,
ekonomia – politika - kultura sektore bezala ezberdintzeko.
Laguntza-bazkide diren enpresek ezin izanen dute SEKTO-
REA sagarra erabili, baizik eta REAS marka, REASen lagun-
tza-bazkidea bereizgarriarekin...

Adibidez

Sustatzen du



Finantzatzen du



Sektorea*



* Sektore kontzeptua alda daiteke etorkizunearan. Orain marken alor ezberdinak bereizten
laguntzen du. Sustatzailea elkartasun ekonomiaren entitate bat izan daiteke (EEE). EEE
baten esku-hartzea agertu nahi denean proiektuaren zatiren batean modu diskretuagoan
egin beharko da kredituetan, memorietan... alde guztiek adostuta (ikus. Markaren
gidaliburua). www.economiasolidaria.org/reasnavarra/comunicación

2008ko Elkartasun ekonomiaren hitzorduak

Hemen bildu ditugu hitzordu nagusiak. Hurrengo buletineta eta
webgunean informazio eta hitzordu gehiago.

Noiz	Zer	Sustatzen du
EKA 21	Bidezko merkataritzako festa Kale-gidaren aurkezpena	REAS+GGKEK
EKA-IRA	Auditoria sozialaren prozesua (AS)	REAS
IRA	Fiare: Kapital soziala lortzeko kanpaina	FIARE NAFARROA elkarte
AZA 28	Erosketarik gabeko eguna	REAS + GKE zenbait
AZA	ASren Emaitzen aurkezpena	REAS
ABEN	3. urtemuga Fiare Nafarroako Bazkideen biltzarra – Kontzertua Barañain auditorioan	NAFARROAKO FIARE elkarte

21 milioi euro

Elkartasun ekonomiaren fakturazioa 2006an. Lana 561 pertso-
narendako eta 223.000 hiritarregana iristen diren jarduerak.

Boladan dago Bidezko Merkataritza?

Kordoba “Bidezko Hiria” izendatua izan da, balear gobernuak
BMko kafe-makinak jarriko ditu, Ebay BMko denda irekiko du,
azalera handiko guneez gero eta BMko produktu gehiago eskain-
tzen... Kontua da, komeni zaielako egiten dute? Zorionez REASen
badira arlo horretan mugitzen diren entitateak eta eboluzio horren
gakoak helaraziko dizkigute.

KONTSUMO ARDURATSUAREN KALE-GIDA (KAKG)

30.000 ale editatu dira eta ekainaren 21ean, Sarasaten ospatuko den Bidezko Merkataritzaren jaiarekin batean banatuko dira. Kale-gida oraindik ez baduzu, REASeko BMko edo Nafarroako GGKEko entitateen egoitzetan eskura dezakezu.

Medicus Mundi Navarra

Ronda de las Ventas k., 4-1º. 31600 Burlata
 Telefonoa: 948 131 510
 navarra@medicmundi.es
 www.medicmundi.es



OCSI. Organización de Cooperación y Solidaridad Internacional

Navarrería k., 27. 31001 Iruñea
 Telefonoa: 948 225 312
 ocsi.navarra@nodo50.org
 www.e-ocsi.org



SETEM

Erriberri k., 1. 31002 Iruñea
 Telefonoa: 948 227 020
 nafarroa@setem.org
 www.setem.org/navarra



GALDERAK REAS NAFARROAKO HIRU ENTITATERI

1. Aurten KAKGaren barnean Elkartasun Ekonomia (EE) sartzen da. Zer dakar berrikuntza honek?
2. Zein da azalera handiko merkataritza guneen papera Bidezko Merkataritzari (BM) zein Kontsumo Arduratsuari (KA) dagokienez?
3. Zein dira zuen kolektiboan dauden BMko zein KAKo praktika zuzenak?

1. Herritarrek EEra hurbiltzea, jakin dezan badirela enpresa zein entitateak ohikoa ez den ekonomia mota hau praktikatzeko dutenak. Ekonomia honetan pertsonak helburuen edo diruaren aurretik daude eta jendeak ezagutu behar ditu horretarako proposatutako jarduerak eta zerbitzuak zein diren, non aurkitzen ahal dituen harremanean jartzeko. Era honetan gure kontsumo ohiturak aldatuz joan gaitzake eta agerian utziko dugu bestelako ekonomia bat posible dela...

2. Hau da galdera bat, eztabaida handia sortzen duena eta egia esan, BM eta KAaren alorretan lanean ari diren GGKEetako jendeak ere ez du irizki bakar bat. Uste dugu, orokorrean, salbuespen jakin batzuk gerta badaitezke ere, BMko produktuak salduz merkataritza gune handiek irudia garbitu nahi dutela, egunerokoan egiten dutenaren %99 BMko irizpideen kontrakoa baita. Ez dute lantzen gizartearen sentiberatzea, eta BMko garrantzia azaltzen ez dutenez, produktu hauek erosten dituztenek behar bada karitatez egin dezakete, eta ez da hori, merkataritza bidezkoa izate nahi dugu. Eta merkataritza guneko KAren inguruko praktikei dagokienez, hutsaren hurrengoa, nolabait kontsumismoaren tenpluak baitira.

3. Instituzionalki ez dugu KAKo praktika zuzenak garatu, baizik eta pertsona bakoitza, boluntarioa edo kontratatua, bere lanean edo eguneroko bizitzan, egoki jotzen dituen praktikak egiten dituela. REASeko KAKo batzordean zein GGKE batzuek osatutako BMko kontsurtzio batean parte hartzen dugu eta astero argitaratzen dugun buletinean sare haien berriak zabaltzen ditugu. Bidezko merkataritzari dagokionez, Burlatako bulegoan elikagaiak saltzen ditugu urte osoan zehar, antolatzen ditugun ekitaldi instituzionaletan produktu horiek dastatzeko aukera ematen dugu (urteko biltzarra, boluntarioen topaketa, jardunaldiak...). Gabonetan hilabetez zabalik dugu denda bat bidezko merkataritzako produktuak saldu eta merkataritza eredu honen inguruko informazioa zabaltzeko, eta urtean zehar gonbidatzen gaituzten lekuetara informazioa eta produktuak eramaten ditugu. Eta azkenik, bidezko merkataritzako kontsurtzioarekin batean, urtean behin "Bidezko merkataritzaren astea" antolatzen dugu.

1. Karen errealtatearen isla da, BMko edo ekologikoak diren produktuen elkartrukate hutsean gelditu behar ez dena, baizik eta funtsean ingurumeneko eta gizakion iraunkortasunaren irizpideak segitzen dituen edozein jarduera ekonomikoa biltzen dela bertan.

2. BM eta KA, beren izaerarekin bat, ez dira gehiago saltzeko eginak. Azalera handikoek bitartez gehiago saltzeko ez digu merkataritza sistemaren arau bidegabeak aldatzeko aukerarik ematen. Haiek baitira egungo merkataritza eredu bidegabea mantentzeko interesatuenak, etekin ekonomiko handiak bereganatzen dituztelako. Ezin ditugu mugatu BM eta KAa jatorriko ekoizpenari aplikatutako irizpide batzuetara. Merkataritza prozesu bat da, ekoizlearengandik kontsumitzailearengana doana, katean aritzen diren gainerako guztiak barne (inportatzailea, transformatzailea, banatzailea...). Ekoizleari ezin diogu exijitu ekoizpenean irizpide batzuen betetzea (soldata duinak, antolaketa demokratikoa, genero politikak, ingurumenarekiko errespetua) kateko gainerakoei gauza bera egiteko ez badiegu eskatzen. Bidezko merkataritza eta estatu zein tokiko kontsumo arduratsua batekin dakar indarra jartzea bertako nahiz hurbileko produktuen merkaturatzean, eta bidezko merkataritzakoetan. Azalera handiko merkataritza guneek bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua erabiltzen dituzte enpresa-marketin tresna gisa eta irudia garbitzeko.

3. Entitatean erabiltzen ditugun garbiketa produktu guztiak ekologikoak eta EEkoak dira: hondakinak birziklatzeko bereizten ditugu. Papergintza material guztia (gutun-azalak, karpetak, foldierak, orriak...) ahalik eta gehien erabiltzen eta aprobetxatzen dira. Ahalik eta energia gehien aurrezten da. Kafekazio sistema bi areto bereizitan banatua dago: batean bulegoa dago, erabileraren handikoa, txapazko berogailuak eta gas sistema daukana; bestea, bilerak egiteko eta gutxiago erabiltzen dena, gas konbektoreen bidez berotzen da. Energia kontsumoa murrizteko beste neurri batzuk badira (burlateak, biltegia ez da berotzen...). Hemengo langile bat ere ez da hona autoz etortzen. Dena fluoreszentez argiztatua dago eta elektrizitate instalazioa arloka jarrita dago.

1. Uste dugu ikuspegi zabalago eskaintzen duela eta herritarrei hurbiltzen dizkie kontsumo arduratsua praktikatzeko aukerak. Ekologikoak eta bidezko merkataritza gain, elkartasun ekonomia arloko entitateek eskaintutako zerbitzuak eta produktuak ditu barne. Hauek ingurumen eta gizarte irizpideak kontuan hartzen dituzte, ekonomia-ko zuzenak.

2. Nahiz eta gaur egun azalera handiko merkataritza guneetan BMko produktuak badiren, uste dugu ez direla kontsumo arduratsuko aukera bat, duten erosketak politikak, kontsumo eredu eta abarrengatik.

Consorcio de Bidezko Comercio Merkataritzaren Justo Kontsurtzioa

ADSIS Equimerca, ALBOAN, Ayuda en Acción, Intermón Oxfam, Medicus Mundi Navarra, OCSI, SETEM www.congdnafarra.org

REAS Nafarroak eta BMko kontsurtzioak bultzatzen dute KAA

3. Gure ekitaldi eta jarduerak guztietan BM eta EEko produktuak zein zerbitzuak lehenesten ditugu. Adibideak: papera birziklatu eta berreraabiltzen dugu, gure materialak birziklatutako paperaz egiten ditugu, gure jardueretan BMko kafea eta produktuak kontsumitu eta eskaintzen ditugu. Gure elastikoak kotoi organikoak dira, bidezko merkataritzako kooperatibetan eginak eta tindu ekologikoez koloretatuak.

KA: Kontsumo arduratsua
 BM: Bidezko merkataritza
 EE: Elkartasun Ekonomia